

“Feuilly haizekigintzako langilea zen, aitamek umezurtz utzia, egunean hiru libera irabazteko lehenenak egiten zituen eta beste pentsamendurik ez zeukana, mundua liberatzea. Bazuen beste arrangura bat oraino: ikastea, eta honi ere liberatzea esaten zion. Bere kasa ikasia zen irakurtzen eta idazten; zekien guztia, bakarrik ikasia zuen. Feuilly bihotz onekoa zen. Hartu ahala hartzen zuen besotan. Umezurtz honek herriak adoptatu zituen. Eskas baitzuen ama, aberriaz egin zuen gogoeta.


Ez zuen nahi lurraren gainean egon zedin gizon bakar bat aberririk gabe. Herri-gizonaren susmo sakon horrekin, guk gaur egun nazionalitateen ideia esaten diogun hori ari zen umatzen bere baitan. Preseski ikasia zuen historia, jakinaren gainean gaitzitu ahal izateko. Utopisten biltzar gazte hartan, Frantziar arduratzen ziren hartan, berak atzerria ordezkatzeko zuen. Aditua zen Grezian, Polonian, Hungarian, Errumanian, Italian.

Atertu gabe aipatzen zituen izenok, harira eta ez harira, eskubidearen temaz. Kreta eta Tesaliaren gain Turkia, Varsoviaren gain Errusia, Venetziaren gain Austria, bortxaketa hauek bere onetik zuten ateratzen. Guztietan, 1772ko gertatu hark zuen amorrarazten gehien. Egia suminduran, ez dago berbakeria ozenagorik; halako berbajariora zuen berak jario. Ez zen agortuko laidozko data honetaz, 1772, traizioan ezabatutako herri noble eta bulartsuaz, hirurak-batek egindako krimen hartaz, zelata izugarriaz, geroztik nazio noble bat baino gehiago kolpatu eta, nolabait esateko, jaiotze agiria urratu dieten Estatu-ezabatze beldurgarri ororen arau eta prototipoa. atentatu sozial hauek denak Poloniaren banatetik sortuak dira. Egungo krimen politiko guztiak korolariotzat dituen teorema da Poloniaren banatzea. Ez da despota bakar bat egon, ez traidore bakar bat, mende bete honetan, Poloniaren banatzea onetsi, homologatu, sinatu eta zigilatu ez duenik.

Traizio modernoek txostena konpulsatzen denean, huraxe ageri da lehenik. Vienako batzarrak krimen hau aztertu zuen berea egin aitzin. 1772 ehizarako turuta da, 1815 zakurren ehizakia da. Horixe zen Feuillyren gaia. Langile dohakabe hau justiziaren tutorea bilakatu zen, eta handi eginez ordaintzen zion hark. Egia esan bai baitago eternala den zerbait eskubidean. Varsovia ezin liteke izan tartarora Venetzia germaniarra ezin izan litekeen ber. Erregeak alferrik ari dira hor ohorea galtzen. Goiz edo berant, hondoratutako aberria azalera dator eta agerian gelditzen da. Grezia ageri da Grezian, Italia ageri da Italian.

Gertatuaren aurkako eskubidearen aldarria betikotu egiten da. Herri baten ohointzak ez du inoiz preskribitzen. Goi mailako ebaskeria hauek ez daukate etorkizunik. Ez da herri bat desjabetzen ahal zapiari jabe-marka kentzen zaion bezala. ”

XIX. mendeko gairik garrantzitsuenetakoa zen “nazionalisten ideia” da kontserbadoreak iraintzen dituen puntua. Hauentzat, kontserbadoreentzat, herriaren muga eta eskubideak bigarren mailako arazoak dira, erret-familien eskubideei azpigarriak. Errebindikazio abertzaleak, ordea, iraultzaileak nahitaez, geroz eta bortitzagoak bihurtzen dira 1830etik aurrera. Iraultza honen detonatzaileak, Erret-dinastiek beren nahiak asetzeko sortutako Europara eramango zituzten 1815eko tratatuak izango dira. Nazionalitateen inguruko Hugoren jarrerak aldaezinak izan ziren. Italiaren birbateratzea, Mexikoren emantzipazio borroka, turkiar inperialismoa eta gudatalde ingeles eta frantsesen eskuko Txinaren inbasioaren aurrean ez da ixilik geratuko.



1862

Victor Hugo, E. Cajarten eskutik, 1862. MVH © J.Vigne et PMVP.

## HERRIEN ESKUBIDEA

Urrikalgarriak, Hirugarren zatia, 4. liburukia, 1. atala, «Historikoa izan zitekeen taldea».